

LESAKA**Urtekaria 2001**
Baztan-Bidasoa*Labekoak*
GOXOTEGIA


Arretxea, 24 • Tel.: 63 70 75 • LESAKA - Nafarroa

IBAI ONDO Janaridenda

Antoiu, 19 • Tel.: 948 63 79 49 • LESAKA

IZARRA ★ OKINDEGIA

Plaza Zaharra, 12-13 - Tel.: 948 63 78 55 - LESAKA


BORTZIRI
"UNSION ANAIK"
Sukaldeko Haltzariak
ERAKUSKETA

Bereau Etzea

Tel.: 948 63 72 66

LESAKA - NAFARROA


kixkur
Ileapaindegia

BITTIRIAKO PLAZA, 3 - behea Tel.: 63 74 29

Bittiria, 21
Tel.: 948 63 75 19
LESAKA**KATTU****OSTATUA - JATETXEA****- PLATER KONBINATUAK**
- BOKATAK - MENUAKArretxea, 22 - 31770 LESAKA
NAFARROA

Xorroxin irratia Lesakan da

Irratiak Lesakan egoitza berria zabaldu du herriko eta inguruko informazioa helarazteko

Xorroxin irratia Baztanen sortu eta entzuten den irratia da. Baztan inguruko herrietara ere ailegatzen da, baina, hala ere, Baztango irratia bezala gelditzen zen eta bertako gaiak ziren nagusi. Orain, aldiz, Xorroxin-en lokalak Lesakaraino ailegatuko dira, irratia bertako eta inguruko herriei hurbiltzeko xedearekin.

Duela bi urte Lesakako udal lizentzia lortu eta lokalean zenbait moldaketa egin ondoren, maiatzaren erdialdean inaugurazio ofiziala egin zuten.

Estudioak bertan edukita, entzulearekiko hurbiltasuna handiagoa izateaz gain, bertako kolaboratzaileen parte-hartzea bultzatu nahi du Xorroxin irratia.

Horrela, telefono bidezko harremanaz gain, irratiko estudioan bertan egoteko aukera dute entzuleek.

Orain arte, *Goiz Argi* saioa Elizondotik egiten zen, eta orain, Nerea Alzuri esatariak Lesakatik egiten du saio hori.



EGUNKARIA

■ Egoitza berriarekin, entzuleekiko hurbiltasuna areagotu nahi da.

LABURREAN

KIROLA

Espainiako txapelduna skeet modalitatean

Jone Fagoaga lesakarra Plater tiraketako Skeet Olinpikoa Espainiako txapeldun izan da. Emaizak oso onak izan dira. Plater tiraketako skeet modalitatean, platerari tiro bakarra bota dakioko. Lesakarrak 75 plateretik 67 xehatu zituen. Espainiako selekzioetik deitu diote. 2004. urtean Atenasko Olinpiar Jokoetan parte hartzeko aukera handia du.

KIROLA

Sokatiran kontent

Beti Gazte sokatira taldeak emaitza onak lortu ditu Euskal Herri mailan egiten den goma gaineko txapelketan. Joan den urtean bezalaxe, lau

txapelketatik hiru jantiz bukatu dute denboraldia. Nafarroako laurekin, txapel uza bikaina lortu du taldeak. Aurtengoan ez dute Munduko Txapelketarik izanen, baina lanean jarraituko dute maila hobea lortzeko.

ARGITALPENA

Beti Gazte elkartearen liburu batean

60 urte eta.....*Beti Gazte* da kirol eta kultur elkartearen historia biltzen duen liburua. 1940. urtean sortu zenetik gaur arte bildu diren datu eta argazkiak aurkitzen dira Aitor Arozenak idatzirik lan honetan. Idazlearen arabera, elkartearen oinarria futbol taldea bazen ere, beste hainbat kirolen bultzatzaile ere bazen. Taldea aurrera eramateko di-

rua behar zenez, kultur ekin-tzak antolatzen hasi ziren. Hala, kultur elkarte bilakatu zen.

PRESOAK

Fresneda kalean baldintzapeko askatasunean

Ainara Fresneda gaztea abuztuaren 22an baldintzapeko askatasunean libre gelditu zen. Eri egonik, kartzelatik atera zuten, baina etxean atxilo edukitzeko; hobera egiten ez zuenez, udal batzarrak aho batez Fresneda askatzeko eskaera egin zuen. Hilabete geroago, 5 milioi pezetako bermearekin, baldintzapeko askatasunean utzi zuten. ETako kideei muga pasatzeko laguntza ematearen akusaziopean martxoan atxilotu zuten, Pausuko lantokian.